

IL AZALPEN PROBA • <i>Gloria Mundi</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
- > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.

1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Gaizki sentitu zen. Parrandak gorabehera, beti izan zen oso serioa bere lanarekin.

Etxetik atera aurretik ordenagailuko posta elektronikoa aztertu zuen, badaezpada. Azken orduko aldaketak ez ziren ezohikoak, eta hobe zen garaiz begiratzea.

Hiru mezu berri: kinieletan irabazteko metodo bat, birus informatiko berri baten aipamena... Mireiaren mezu bat. To! Mireia bere urtebetetzearekin gogoratu zen!

Zorionak, Joseba. Eztakit e-helbide hau izaten jarraitukozun, baina baezpada idazteizut: Zorionak, pendejo! Ikusten nola oraindik gogoratzen naizen? Ez, ez zenuen merezi (broma da).

Auskalo non ibiliko zaren

Horrelaxe bukatzen zen mezua. Moztuta.

IL AZALPEN PROBA • <i>Gloria Mundi</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

> Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.

1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Dianne, ezta? —ondorioztatu zuen Amaiak.

—Bai. Daukagun helduleku bakarra da. Bere etxean sartu, mikrofono horiek jarri eta Dianne zirikatu, eror badaiteke eror dadin. Huskeria bat —ironizatu zuen.

Amaia gelatik atera zen, ezer esan gabe. Plastikozko maleta handi batekin agertu zen. Hainbat gailu atera zituen. Walkman arrunt baten tankerako zerbait, eta zenbait gailu txiki.

—UHFko hargailu indartsua da —jakinarazi zion Amaiak, walkman itxurakoa seinalatuz—. Txikiak, noski, mikrofonoak dira.

—Badabiltza?

—Laster ikusiko dugu. Beste tresna batzuk ere probatu nahiko nituzke. Behin hasita, hobe ahalik eta ondoen egitea. Keylogger bat, adibidez. Litekeena da Diannek ordenagailu bat izatea. Horrelako programek hark idatzitako guztia grabatzen dute. Interesatzen zaigun zerbait idatziko balu, berehala jakingo genuke. Beste gauza bat: emakume hori, Dianne, bakarrik bizi al da?

Ez nago seguru. Ez zidan beste inor aipatu.